

NIRE TABERNARIK GOGOKOENA

Dazz tabernari idatzitako amodiozko gutuna



Dazz tabernan zuzeneko musika da nagusi. / IGOR MARTÍN

AIZTOGILE KALEA, 60. GASTEIZ



SILVIA CANTERA – EL CORREO - 2020ko maiatzak 18



Nola ez! Taberna batera joaterekin 'amestu' dut egun hauetan. Barrara joan eta koadrilak nahi dituen **edariak futbol talde klasiko baten jokalaria-zerrenda izango balitz bezala eskatzea**. Eta hiruzpalau erronda eskatu eta gero... parranda! Ahal denean, egingo dugu. Askotan. Ziur nago. Baina lehenengo eta behin, beste plan bat egitea gustatuko litzaidake. Izan ere, askoz errazagoa

dela uste dut etorkizun hurbilari erreparatzen badiogu. Kafe edo te bat hartzea kafetegi lasai eta xarmangarri batean. Nire koilaratxoarekin katiluan bueltak ematen ditudan bitartean, begirada altxatzen dut... **Non egon nahiko nuke? Gasteizeko Dazz tabernan, ez dago zalantzarik.**

Aitortu behar dut taberna honetara sartzen naizen bakoitzean hartuko dudan edaria eskatu baino lehen, lekua aukeratzen dudala. **Oso kafetegi eroso da.** Sofa batzuekin, etxeko egongelan zaudela sentiarazteko. Tira... agian etxeko egongelan sentitzea ez dago orain nire lehentasunen artean. Baina bai bertako te beltza edatea. Baita giro hori arnastea ere.

Ezin dut Dazz tabernari buruz hitz egin musika aipatu gabe. Eszenatoki txikia dago bertan eta askotan kontzertuak ematen dituzte. Jazz estiloa da nagusi. **Zuzenekoak faltan botatzen ditut.** Izugarri. Pantailaren beste aldean ez dira gauza bera, nahiz eta ulertu segurtasun neurriak bermatzeko modurik onena dela momentu honetan.

Kulturak itxialdia erraztu dit. Liburuak, serieak, pelikulak, diskoak... Eta pandemiaren ostean ez dut betiko ohitura hori galdu nahi. Baina aldaketa bat egingo nioke plan horri. **Kultura partekatu nahi dut. Ea Dazzeko kontzertuak laster bueltatzen diren.** Eta zuzenekorik gabeko egunetan..., nobela baten konpainiaz gozatuko dut, libre badago, kafetegiko nire sofarik gogokoenean.